



GASTEIZKO ERIZAINZAKO
UNIBERTSITATE-ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA
DE ENFERMERIA DE VITORIA-GASTEIZ



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ZER ERAGIN IZAN DEZAKE KANGURU METODOAK JAIOBERRI ETA GURASOENGAN?



GRADU AMAIERAKO LANA

Literaturaren berrikusketa kritikoa

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA

2020-2021 IKASTURTEA

Egilea: Julene Larrakoetxea Mugarza

Hitz kopurua: 5022

Data: 2021-05-03

ESKER ONAK

*Zuzendariari,
eskainitako pazientzia eta denboragatik.*

*Nire familia eta Aitorri,
momentu oro nigan sinetsi eta laguntzarren.*

*Nire lagunei eta nire ikaskideei,
prozesu guzti honetan zehar bide lagun izateagatik.*

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	4
HELBURUA	7
METODOLOGIA ATALA	8
Testu mota.....	8
Bilaketa estrategia.....	8
Barneratze eta kanporatze irizpideak	8
Artikuluen aukeraketa eta analisisa	9
EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	11
JAIOBERRIENGAN DITUEN ERAGINAK	12
Prozedura mingarrietan mina murriztea	12
Edoskitze naturalaren hobekuntza.....	13
Parametro fisiologikoen egonkortzea.....	15
GURASOENGAN DITUEN ERAGINAK	16
Ongizate psikologikoa eskuratzea	16
Guraso eta jaioberrien arteko harremanak sendotzea.....	18
ONDORIOAK.....	20
MUGAK ETA ZAILTASUNAK:	22
BIBLIOGRAFIA	23
ERANSKINAK	27
I.Eranskina: Kanguru metodoaren posizio ideala	27
II.Eranskina. Kontzeptu taula	28
III.eranskina: Bilaketa estrategia taula.....	31
IV.eranskina: Fluxu-diagrama	36
V.eranskina: Irakurketa kritikoko gidoia.	37
VI. eranskina: Emaitzen laburpen taula.	44
VII Eranskina: Zuhaitz-kategoria.....	55

SARRERA

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Urtero jaioberri goiztiarren eta pixu baxukoen jaiotze tasak gero eta gehiago handitzen dira. Ondorioz, hauek, neonatologia unitateetan ospitaleratuak izaten dira, zainketa bereziak jaso ahal izateko. Honek osasun sisteman zein guraso eta jaioberriengan eragin desiragaitzak sortu ditzake; kostua, karga, estresa... Hau hobetzeko, kanguru metodoa nagusitzen da, jaioberriak gurasoen azal azaleko kontaktua izanik. Beraz, urteetan zehar teknikak onura ugari dituela ikusita, erizaintzako hau ezagutzea garrantzitsua litzateke zainketa egokiak eskaintzeko.

Helburua: Kanguru metodoak neonatologia unitatean ospitaleratutako jaioberri eta gurasoengan duen eragina aztertzea.

Metodologia: Helburua zehaztu eta hemendik kontzeptu nagusiak aukeratu dira. Ondoren, datu base desberdinak kontsultatu dira; Medline, CINHALL, IME, CUIDEN Cochrane Liburutegia eta RNAO. Eskuzko bilaketak ere egin dira, Elsevier eta Science Direct aldizkaiertan. Azkenean, barneratze eta kanporatze irizpideak eta irakurketa kritikoko gidoia kontutan izanik, 15 artikulua lortu dira, horietatik 8 entsegu kliniko, 3 ikerketa kuasi-esperimental, 3 ikerketa prospektibo eta kohortezko ikerketa bat.

Emaitzak: Jaioberrien kasuan, metodoak prozedura mingarrien aurrean mina murrizten duela ikusteaz gain, minak eragindako erantzun fisiologikoak egonkortzen dituela ikusi da. Metodoari esker, edoskitze naturalaren luzapena, produkzioa handitzea eta jaioberrien parametro fisiologikoan egonkortzea lortu da (bihotz eta arnas maiztasuna murriztuz, eta temperatura, pisu eta taila handituz). Gurasoei dagokienez, hauen ongizate psikologikoa eskuratzeko baliagarria dela frogatu da, estresa zein antsietatea murriztuz. Hiru banakoen arteko harremanak hobetu eta sendotzeko eragina duela ere ikusi da.

Ondorioak: Kanguru metodoak eragin positibo ugari dituela ikusi da guraso zein jaioberriengan. Honako hau kontutan izanik, eragin positibo hauek batez ere epe laburrean oinarritzen dira. Hala ere, epe luzera dituen onurak aztertzen jarraitu beharra dagoela ikusi da. Horretarako, garrantzitsua da erizainek formakuntza egokia izatea, metodoa bultzatu, indartu eta ikustarazteko.

Hitz gakoak: “Kanguru metodoa”, “Neonatologia unitatea”, “jaioberriak”, “gurasoak”, “ama”.

MARKO TEORIKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

Urtero 20 milioi haur inguru pisu baxuarekin jaiotzen dira, hala nola, beraien adin gestazionala kontutan izan gabe, 2.5kg baino gutxiagorekin ¹⁻⁴. Honako hau estuki erlazionatuta dago jaiotze goiztiarrekin, hau da, haurdunaldiko 37. astea baino lehenago jaiotzen direnekin ^{1,3}. Urtero, mundu osoan zehar, jaioberri goiztiarren tasak gero eta gehiago handitzen dira eta gaur egun, 15 milioi jaioberri goiztiar jaiotzen direla ikusi da, 10 haurretatik bat baino gehiago izanik ⁵⁻⁸.

Mundu mailako morbiditate neonatala, %53-koa da, eta Europan, honen kausa nagusienak goiztiartasuna eta jaiotzeko pisu baxua direla esan daiteke ^{1,4,5,8,9}. Bestalde, morbiditate neonatalak erlazio zuzena dauka kondizio sozioekonomikoekin; pobreziarekin hain zuzen ere ^{2,5,9,10}. Egia da, herrialde aurreratuetan, tasa urteetan zehar asko gutxitu dela baina garapen bidean dauden herrialdeetan edo herrialde azpigaratuetan aldiz, jaioberrien %90-a goiztiarrak eta pisu baxukoak dira ^{2,5,9,10}.

Honako hau kontutan izanik, jaioberri goiztiarra bere organo eta sistemen heldutasun murriztuarekin jaiotzen da eta horrek, gaixotasunen aurrean zaurgarriagoa eta kanpo agenteekiko sentikorragoa bihurtzen du ^{3-5,10-12}. Hala nola, erlazionatutako arazo edo konplikazio ugari izan ditzakete; infekzioak, arnasteko, ikusteko edota entzuteko arazoak, garapen kognitiborako zein elikatzeko arazoak... ^{3-5,10-12}

Egoera hauen aurrean, jaioberriek neonatologia unitateko laguntza osagarria behar izaten dute ^{4,13}. Kasu hauetan, jaioberriaren zainketez arduratzen direnak, batez ere, osasun profesionalak izaten dira eta horren ondorioz, askotan, gurasoak bigarren maila batean geratzen dira ¹³.

Jaioberri hauen gurasoek, jaio eta berehala jaioberriengandik banatuak izaten direnez, erditze osteko depresioa, egoera traumatiko baten ondoriozko estresa zein umore aldaketak garatzeko arrisku handiagoa izan ohi dute ^{6,7,13-18}. Honen ondorioz, haurraren eta gurasoen elkarrekintzetan aldaketak gertatu daitezke, hala nola, komunikazio arazoak zein haurra zaintzeko ezintasuna ^{6,7,13-18}.

Jaioberriaren eta gurasoen arteko erlazioak, erditu eta lehenengo egunetan izaten du indarririk handiena, hau, ondorengo urteetako guraso-haurraren arteko harremanaren oinarria izanik ^{16,19}. Honekin erlazionatuta, jaioberriaren eta gurasoen banatzea gutxitzeko, erlazioa hobetzeko eta gurasoak lehen mailako zainzaileak izateko, Kanguru

metodoa nagusitzen da ^{5,6,9,13}. Teknika hau Rey eta Martinez medikuek ezagutzera eman zuten Bogotan, Kolonbian, 1978. urtean, errekurtsu gutxiko eremuetan, inkubagailuen alternatiba gisa ^{1,2,4,9-11,19,20}.

Kanguru metodoa, jaioberri goiztiarrei zein pisu baxukoei zuzendutako teknika maitagarri eta eraginkorra da, gurasoen larruazaleko kontaktu zuzen, jarraitu eta luzatuaren harremanean oinarritzen dena ^{1,2,4,9,10,13}. Marsupialen antzera, gurasoak elikadura eta estimulazio iturri nagusi izaten dira, beraien metabolismoa erabiliz “inkubagailu natural” gisa aritzen baitira haurra heltzeko helburuarekin ^{1,2,4,9,10,13}. Hori dela eta, osasuna eta ongizatea sustatzen duen metodo eraginkor eta aplikatze erraz gisa definitzen da ^{1,2,4,9,10,13}.

Kanguru metodoa, edozein gurasok praktikatzeko aukera du, adina, arraza, hezkuntza, erlijioa zein erditze kopuruak zeintzuk diren kontuan izan gabe ^{1,2,10,21}. Hala ere, garrantzitsua da teknika burutzen hasteko gurasoak prest eta jaioberria egonkortuta egotea ^{1,2,10,21}.

Posizio idealari dagokionez, jaioberria gurasoaren bularraldean kokatuko da, posizio bertikalean, hala nola, bien bularraldeak kontaktuan jarritz ^{1,4,20-23}. Jaioberriaren burua alde baterantz begira jarriko da, honen luzapena ahalbidetuz, hala, arnas bideak zabalik mantenduko dira eta haurraren eta gurasoaren arteko kontaktu bisuala nagusituko da ^{1,4,20-23}. (*I Eranskin: Posizio ideala*)

Hasieran edo lehenengo egunetan, modu gradual edo intermitente batean praktikatzea gomendatzen da, inkubagailutik ordu batzuk soilik aterata baina beti ere 60 minutu baino gehiagoko sesioak burutuz ^{1,6,13}. Apurka-apurka, praktikaren denbora luzatzen joango da, denbora maximora iritsi arte, goiz eta gauetz ^{1,6,13}.

Teknikaren amaierari dagokionez, praktika eteteko momentu jakin bat ez dagoela esan beharra dago ^{21,22}. Kasu honetan, haurra izango da praktikari amaiera emango diona, hau da, haurra deseroso sentitzen denean, amaiera emango dio praktikari ^{21,22}.

Beste alde batetik, urteetan zehar, azal azaleko metodoa inkubagailuen alternatiba izateaz gain, teknikak abantaila edo onura ugari izan ditzakeela ikusi da jaioberri zein gurasoen ongizate fisikopsikosoazalean ⁵.

Jaioberrien alderdi fisikoari erreparatuz, azal azaleko kontaktuari esker, haurraren egonkortze fisiologikoa eskuratzeaz gain, teknikak, jaioberriaren bizi konstanteak

egonkortzen laguntzen duela esan da ^{6,7,9-11,16,24}. Edoskitze naturalari dagokionez, honen luzapena eta esne produkzioa handitzen dela ikusi da ^{6,9,10,19}. Horrez gain, Neonatologia unitatean burutzen diren teknika mingarrien aurrean, metodoari esker, minaren eta estresaren gutxitzea lortu da ^{13,24}.

Alderdi psikologikoari dagokionez, teknikari esker guraso zein jaioberrien lo-esna aldia antolatuagoa bihurtzen dela ikusi da, egoera emozionalean eragin positiboak izanik ^{6,7,11,13,16,24}. Gurasoen kasuan, egoera berrira hobeto egokitzeaz gain, zaintzaile nagusi bihurtu eta gurasoen gogo aldartea hobetu egiten dela ikertu da, estres zein antsietate mailak murriztuz ^{6,7,11,13,16,24}. Jaioberriaren garapen mental, kognitibo eta emozionalean eragin positiboak dituela ere esan ohi da ^{7,11,13,24}.

Alderdi sozialean zentratuz, teknikaren goxotasuna aintzat hartuta, guraso eta jaioberrien arteko interakzioa zein konfidantza handitu egiten da, hiru hauen arteko harremanean eragin positiboak izanik ^{7,10,11,13,16,19}.

Bestalde, haurrentzat oso garrantzitsua da etengabeko zaintzaile bat izatea, honek segurtasuna eskaintzen baitie ⁸. Horregatik, erizainen partetik, garrantzitsua izango da, gurasoak lehen mailako zaintzaile gisa identifikatzea eta erditu bezain pronto jaioberriei eta gurasoei ahalik eta denbora gehien batera egoteko aukera eskaintzea ⁸.

Honako hau posible izateko, erizainen partetik zenbait zainketa kontutan izan behar dira, ahalik eta atentzio hoberena eskaini ahal izateko ^{4,6,13,16}. Gurasoak, indartuta sentiarazi behar dira beraien guraso rolean eta horretarako, erizainek, laguntza, sostengua eta segurtasuna eskaini behar diete ^{4,6,13,16}.

Beraz, urtero, jaioberri goiztiar eta pisu baxukoak jaiotze tasak gero eta gehiago handitzen ari direla kontutan izanik, neonatologia unitatean jaioberri eta gurasoen kopuruak gora egingo duela ondorioztatu daiteke, honek osasun sisteman kostu eta karga eraginez ⁵⁻⁸. Hala ere, ikusi da kanguru metodoari esker, jaioberri zein gurasoen ongizate fisikopsikosoziala lortzeaz gain, ospitaleratze denbora ere murrizten dela, hala nola, osasun kostua eta karga murriztuz. Hori dela eta, erizaintzako garrantzitsua da kanguru metodoak bi banako hauengan dituen onurak aztertzea, horrela beraien ezagutza handitzeko, zainketa egokiak eskaintzeko eta teknika ezagutzera emateko.

HELBURUA

Kanguru metodoak neonatologia unitatean ospitaleratutako jaioberri eta gurasoengan duen eragina aztertzea.

METODOLOGIA ATALA

Testu mota

Gradu Amaierako Lan honetan, helburuari erantzuteko literaturaren berrikusketak kritikoko lana burutu da.

Bilaketa estrategia

Lehenik eta behin, helburua zehaztu da eta ondoren, bilaketak egin ahal izateko, helburutik honako kontzeptu nagusiak deskribatu dira; kanguru metodoa, jaioberriak, Neonatologia Unitatea, gurasoak eta ama. Hitz gako hauen sinonimoak izendatu dira lenguai naturalean, euskaraz eta ingelesez, eta ondoren, datu base bakoitzeko deskriptoreak izendatu dira, lenguaia kontrolatuan, IME, CINHAL-en “Descriptores de CINHAL”, CUIDEN-en “palabras clave” eta Cochrane liburutegian eta Medlinen MeSH-ak erabiliz. (*Eranskin II: Kontzeptu-taula*)

Datu base bakoitzean, bost kontzeptu nagusien hitz gakoak deskribatu ostean, ekuazio desberdinak burutu dira, hitz gakoak eta AND eta OR operadore boleanoak konbinatuz. Behin ekuazioak sortuta, ebidentzia altuko eta kalitatezko artikulak lortzeko, datu base desberdinetan bilaketak egin dira, hala nola, internazionalak diren datu baseak, Medline eta CINHAL, gaztelaniaz argitaratzen dituzten datu baseak, IME eta CUIDEN, ebidentzia zientifikoa oinarritutako datu basean, Cochrane Liburutegia eta RNAO praktika klinikoko gidan.

Datu baseetan ez ezik, eskuzko bilaketak ere egin dira, hala nola, aldizkarietan; Elsevier (Clinical Key, Doyma) eta Science Direct-en (Journal of Pediatric Nursing). (*Eranskin III: bilaketa estrategia taula*)

Barneratze eta kanporatze irizpideak

Testuen aukeraketa egiteko barneratze eta kanporatze irizpide batzuk zehaztu dira.

Barneratze irizpideak

Hizkuntza: Euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez dauden artikulak aukeratu dira, egileak ulertzen dituen hizkuntzak direlako.

Argitalpen data: 2010 urtetik 2020ra argitaratutakoak izan dira onartuak, eguneratutako informazioa izateko.

Argitalpen mota: Barne hartuko den bibliografia honako hau izango da; praktika klinikoko gidak, ikerketa deskriptibo eta analitikoak, meta analisiak, eta ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboak, informazio fidagarria eskuratzeko.

Populazioa: Neonatologia unitatean ospitaleratuta dauden edo izan diren jaioberri goiztiarrak, pisu baxukoak eta hauen gurasoak barne hartuko dira. 1978. urtean kanguru metodoa neonatologia unitateetan aplikatzen hasi zelako inkubagailuen ordezkotako zainketa gisa.

Geografia: Ahalik eta informazio gehien biltzeko, herrialde guztiak onartuak izan dira.

Kanporatze irizpideak

Hizkuntza, argitalpen data eta populazioa barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikulua baztertuak izango dira. Honez gain, honako kanporatze irizpide hauek ere kontutan izan dira:

Argitalpen mota: Ebidentzia maila baxuko informazioa eskaintzen duten artikulua baztertu egin dira, hala nola, literatura grisa; aktak, tesiak, konferentziak...

Eskuragarritasuna: Artikuluen *full text*-a lortzea posible izan ez denean, artikulua deuseztatu egin dira.

Artikuluen aukeraketa eta analisisa

Lehenik eta behin, aurretik aipatutako barneratze eta kanporatze irizpideak kontutan izanik, irizpide hauek betetzen ez dituzten artikulua baztertzeko asmoz, filtro desberdinak erabili dira (dataren filtroa...).

Filtroak aplikatu eta errepikatutako artikulua (n=154) baztertu ostean, artikuluen aukeraketa fase desberdinetan egin da. Lehenik eta behin, artikuluen izenburuak eta laburpenak irakurri dira (n=251) eta barneratze irizpideak betetzen ez zituzten eta helburuarekin bat ez zetozen artikulua baztertu egin dira (n=172).

Ondoren, artikuluen *full text*-ak aurkitu dira, hauek osorik irakurriz (n= 79). Hauetatik, barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikulua baztertuak izan dira

(n=32). Honen ostean, eskuzko bilaketak ere egin dira eta hauetatik bakarra izan da aukeratua. (*Eranskin IV: Fluxu-diagrama*)

Beraz, honen ostean, irakurketa kritikorako artikuluen barneraketa burutu da, artikulua fidagarriak eta kalitatezkoak bilatzeko asmoz (n=48). Hori dela eta, lana ebidentzia altuenean oinarrituta egoteko, helburuari erantzuteko egokienak izan diren eta irakurketa kritikoko gidoia betetzen duten 15 artikulua aukeratu dira. (*Eranskin V: Irakurketa kritikoko gidoia*).


Lana aurrera eramateko erabilgarriak izango diren 15 artikuluen laburpen taulak egin dira hauen izenburua, egileak, urtea eta lekua, helburuak, diseinua, lagina, interbentzioa eta ideia nagusiak adieraziz. (*Eranskin VI: Laburpen taula*)

Bukatzeko, emaitzen atalaren laburpen bat egiteko, hala nola, kanguru metodoak guraso eta jaioberriengan dituen eraginak modu eskematiko batean azaltzeko, eraginak multzokatu eta zuhaitz kategoriala osatu da. (*Eranskin VII: Zuhaitz kategoriala*)

EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Bilaketa prozesu honetan, emaitzen atala aurrera eramateko 15 artikulu aztertu dira. Bilatutako artikulu guztiak kuantitatiboak izan dira, hala nola, zortzi entsegu kliniko, kohortezko ikerketa bat, hiru ikerketa kuasi-esperimental eta beste hiru ikerketa prospektibo. (I. diagrama)

I. *Diagrama: Artikuluaren jatorriaren arabera sailkapena (egileak eginda).*



Artikuluak aztertu ondoren eta helburua kontutan izanik, “Kanguru metodoak neonatologia unitateko jaioberri eta gurasoengan dituen eraginak aztertzea”, emaitzak bi kategoria nagusitan banatu dira: metodoak jaioberriengan dituen eraginak eta gurasoengan dituen eraginak. Jaioberrien eraginei dagokienez, hiru azpi atal nagusi bereizi dira; prozedura mingarrietan mina murriztea, edoskitze naturalaren hobekuntza eta parametro fisiologikoen egonkortzea. Gurasoengan duen eraginari dagokienez, bi azpi atal nagusi bereizi dira; ongizate psikologikoaren eskuratzea eta guraso eta jaioberrien harremanaren sendotzea.

JAIOPERRIENGAN DITUEN ERAGINAK

Prozedura mingarrietan mina murriztea

Neonatologia unitatean ospitaleratutako jaioberriek egunero prozedimendu inbasibo eta mingarri ugari jasotzen dituzte, horietatik ezagunena ziztada izanik²⁵⁻²⁷. Hori dela eta, kanguru metodoak prozedura hauetan jaioberrien mina murrizteko duen eragina aztertzen duten hiru artikulu lortu dira²⁵⁻²⁷.

Mina baloratu ahal izateko, metodo desberdinak erabili dituzte ikerlariek, hala nola, PIPP eskala (Premature Infant Pain Profile) eta jaioberrien monitorizazioa (bihotz maiztasuna) parametro fisiologikoen aldaketak aztertzeke²⁵⁻²⁷.

Ikerketa desberdinetan, ziztada momentuan kanguru metodoa burutzen den kasuetan, jaioberrien minaren balioak (PIPP eskalaren balioak) murriztu egin daitezkeela ikusi da^{25,26}. Nimbalkar SM et al.²⁵ entsegu klinikoan esaterako, ikusi da, ziztada momentuan kanguru metodoa burutu duten jaioberrien kasuan, PIPP eskalaren balioak estatistikoki modu esanguratsu batean jaitsi direla ($p < 0.0001$).

Ildo beretik jarraituz, Choudhary et al.²⁶ entsegu klinikoan ere aurreko ikerketan gertatu dena ikusi da, hala nola, ziztada momentuan azal azaleko kontaktua jaso duten jaioberrien kasuan, hauen PIPP eskalaren balioak baxuagoak izan dira. Beraz, aurreko ikerketa hauei erreparatuta, esan daiteke kanguru metodoak eragina duela jaioberrien ziztada momentuko mina murriztean.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, ziurtasun falta dagoela metodoak minari dagokionez gerora izango duen eraginean, adibidez, denboran zehar mantentzen den jaioberriaren mina baretzerako orduan. Choudhary et al.²⁶ entsegu klinikoan esate baterako, jaioberri eta gurasoek kanguru metodoa epe luzean praktikatu dute, zazpi egunetan hain zuzen ere. Honako hau kontutan izanik, ez da desberdintasun esanguratsurik ikusi PIPP eskalaren balioetan²⁶. Beraz, honekin, metodoak epe luzera esparru honetan dituen eraginak ondo ezagutzen ez direla esan dezakegu.

Beste alde batetik, minak eragindako erantzun fisiologikoen inguruan hitz egiten duten ikerketa desberdinak ere badira²⁵⁻²⁷. Nimbalkar SM et al.²⁵ entsegu klinikoan, kanguru metodoa burutu duten taldean, kontrol taldearekin (kanguru metodoa burutu ez duen taldea) alderatuta bihotz maiztasuna jaitsi egiten dela ikusi da.

Aurreko ikerketaren ildoa jarraituz, Choudhary M et al.²⁶ ikerketan, kanguru metodoa burutu duten jaioberrien kasuan, bihotz maiztasuna modu esanguratsu batean jaitsi dela ikusi da, ziztada eman eta 60 eta 120 segundutara ($p < 0.01$). Hori dela eta, jaioberriak azal azaleko kontaktuaren bidez erlaxatu egiten direla esan daiteke eta bide horretatik hauen bihotz maiztasuna ere moteldu egiten dela²⁶.

Hala eta guztiz ere, Cong X et al.²⁷ entsegu klinikoan, ez dator bat aurreko bi artikuluekin²⁵⁻²⁷. Izan ere, kanguru metodoa jaso duten jaioberrien kasuan, ziztada momentuan ez da bihotz maiztasuna modu esanguratsu batean jaitsi ($p < 0.05$)²⁷. Hala ere, artikulua honetan, kanguru metodoa burutu duten jaioberrien kasuan, denboran zehar bihotz maiztasuna egonkortu egiten dela adierazten da²⁷.

Laburbilduz, azal azaleko teknika, prozedura mingarria burutzen den momentuan mina murrizteko metodo ez farmakologiko erangikor eta aplikatze erraza dela esan daiteke. Hala eta guztiz ere, arestian esan bezala, esan beharra dago, ziurtasun falta dagoela metodoak minari dagokionez gerora izango duen eraginean, adibidez, denboran zehar mantentzen den jaioberriaren mina baretzerako orduan. Hori dela eta, gomendagarria litzateke aspektu honen inguruan aztertzen jarraitzea.

Edoskitze naturalaren hobekuntza

Jaioberri goiztiarra bere organo eta sistemen heldutasun faltarekin jaiotzen da eta ondorioz, infekzioak pairatzeko arriskua izaten du²⁸⁻³². Hori dela eta, OMS-ek jaio eta lehenengo sei hilabeteetan jaioberriei edoskitze naturala eskaintzea gomendatzen du, babes immunologiko, nutrizional, ekonomiko zein psikologikoa eskaintzen duelako²⁸⁻³². Kanguru metodoak jaioberri hauei edoskitze naturala errazteko aukera eskaintzen duela esan ohi da²⁸⁻³². Horregatik, kanguru metodoak edoskitze naturalarekin duen erlazioa aztertzen duten bost artikulua aurkitu dira²⁸⁻³².

Aipatutako artikuluek edoskitze naturalaren aspektu desberdinen inguruan hitz egiten dute²⁸⁻³². Alde batetik, esnearen produkzioan dituen eraginen inguruan hitz egiten dute eta bestetik, kanguru metodoak edoskitze naturalaren hasierarekin edo luzapenarekin duen erlazioaren inguruan²⁸⁻³².

Esnearen produkzioari dagokionez, Coşkun D et al.²⁸ ikerketan ikusi da denborak aurrera egin ahala, kanguru metodoa burutu duten amen kasuan esnearen produkzioa modu esanguratsu batean handitu dela ($p < 0.001$). Hala nola, lehenengo astean esnearen

produkzio media 1696 ml hazi da, bigarren astean 2409 ml eta hirugarren astean 2973 ml-raino heldu da ²⁸. Hori dela eta, azal azaleko metodoak esnearen produkzioan eragina duela esan daiteke. Hala ere, hau adierazten duen ikerketa bakarra dugunez, egokia litzateke baieztapen hau ez orokortzea eta esparru honetan ikertzen jarraitzea.

Edoskitze naturalaren hasierari dagokionez, Lau Y et al.²⁹ ikerketak kanguru metodoa modu goiztiar batean jaso dutenek, hala nola, erditu eta 30 minuturen barruan, berehalako edoskitze naturalarekin izan duten erlazioa estatistikoki esanguratsu izan dela adierazten du ($p < 0.001$). Beste alde batetik, artikulua honetan azal azaleko teknika praktikatu duten jaioberrien kasuan, xurgatze eraginkorrago bat izan dutela ikusi da²⁹. Hala ere, Coşkun D et al.²⁸ ikerketan gertatzen den bezala, ezin dugu baieztapen hau orokortu, honen inguruan hitz egiten duen artikulua bakarra aurkitu delako.

Bestalde, kanguru metodoak epe luzeko edoskitzean duen eragina aztertzen duten artikulua gehiago bilatu dira eta honako hauek baieztapen ziurrago batera eramaten gaituzte. Nagai S et al.³⁰ artikuluan, esate baterako, kanguru metodoak edoskitze naturalari dagokionez, epe laburrera ez ezik, epe luzerako eraginak ere eskaintzen dituela ikusi da. Hori dela eta, ikerketa honetan, azal azaleko teknika modu goiztiarrean aplikatu dutenen kasuan, jaioberriari lehenengo 4-6 hilabetetan edoskitze natural eskusiboa proportzionatzeko aukera eskaintzen duela ikusi da ³⁰.

Ildo beretik jarraituz, Mörelius E et al. ³¹ eta Flacking R et al. ³² ikerketak bat datoz aurreko artikuluekin³⁰⁻³². Bi ikerketa hauetan esaten denez, kanguru metodoa burutu duten jaioberrien kasuan, jaio eta 1-4 hilabete bitartean, biberoiarekin edo biberioia eta edoskitze naturalarekin elikatzen diren neonatoekin alderatuta, jaioberri guztiek modu partzial edo eskusibo batean jasotzen dute edoskitzea ³⁰⁻³².

Aurreko ikerketaren ildo jarraituz, Nagai S et al.³⁰ ikerketan kanguru metodoa modu jarraitu batean praktikatu duten taldearen kasuan, jaio eta 6 hilabetetara edoskitze natural eskusiborako intzidentzian aldaketa onuragarri esanguratsu bat nabaritu dela adierazten da ($p=0.04$).

Hau guztia kontutan izanik, kanguru metodoak edoskitze naturalarekin erlazio zuzen eta estu bat duela esan beharra dago. Hala ere, egia da, epe laburreko kanguru metodoak edoskitze naturalean izan ditzakeen eraginak aztertzen dituzten artikulua gutxi bilatu direla. Beraz, ikerketa gutxi egin eta bilatu direnez, epe laburreko kanguru metodoak edoskitze naturalean eragina duelako baieztapena, ezin dugu orokortu. Horrez

gain, kanguru metodoa denbora luzez praktikatzen dutenen kasuan edoskitze naturalean emaitza positiboak ikusi direla esan beharra dago, bai produkzioan eta baita luzapenean. Honako hau denbora luzean zehar amaren bularrarekin kontaktuan egoteagatik izan liteke.

Parametro fisiologikoen egonkortzea

Jaioberri goiztiarrek zein pisu baxukoek, neonatologia unitateetan monitorizatuta egoteko joera izan ohi dute eta hori dela eta, honako parametro hauek izaten dira aztergai; pisua eta taila, bihotz maiztasuna, arnas maiztasuna, oxigeno saturazioa eta gorputz tenperatura^{30,33-36}. Kanguru metodoak jaioberrien parametro fisiologikoetan duen eragina aztertzen duten hainbat ikerketa desberdin aurkitu dira^{30,33-36}.

Pisuari eta tailari dagokionez, hiru artikuluk kanguru metodoa jaso duten jaioberrien kasuan pisu eta altueraren igoera izan dutela baieztatzen dute^{30,33,34}. Esate baterako, Nagai S et al.³⁰ ikerketan, kanguru metodoa modu goiztiar batean hasi duten eta denboran zehar praktikatzen jarraitu duten jaioberrien kasuan, pisua eta altuera modu esanguratsu batean igo direla ikusi da ($p=0.004$) eta ($p=0.008$).

Honako hau kontutan izanik, Bera A et al.³³ bat dator aurretik aipatutako artikuluekin, izan ere, kanguru metodoa jaso duten jaioberrien kasuan, nahiz eta epe laburrera pisu eta altueraren igoerarik ez antzeman, epe luzera, 3-6 hilabetetara hain zuzen ere, jaioberri hauen garapen fisiko esanguratsu bat nabaritu da pisuari eta altuerari dagokionez ($p<0.001$)^{30,33}.

Bihotz maiztasunari dagokionez, hiru artikuluk baieztatzen dute kanguru metodoak jaioberrien bihotz maiztasunarekin erlazio zuzena duela³⁴⁻³⁶. Bloch-Salisbury E et al.³⁵ ikerketak esaterako, kanguru metodoa jaso duten jaioberrien bihotz maiztasuna modu esanguratsu batean jaitsi dela adierazten du ($p=0.036$). Bestalde, aurreko ikerketan ez bezala, Cho ES et al.³⁴ eta Parsa P et al.³⁶ artikuluek, kanguru metodoa jaso duten jaioberrien bihotz maiztasuna modu esanguratsu batean egonkortu dela adierazten dute ($p=0.02$).

Arnas maiztasunari dagokionez, hainbat ikerketak adierazi dutenez, gurasoen bihotz maiztasunak erlazio zuzen eta estua du arnas maiztasunarekin, hala nola, gurasoen bihotz taupadek jaioberriaren arnasketa kontrolatuz^{35,36}. Beraz, Parsa P et al.³⁶ artikuluari

erreparatuta, kanguru metodoa jaso duten jaioberrien arnas maiztasuna egonkortu egiten dela ikus daiteke.

Kanguru metodoak oxigeno saturazioan duen eragina aztertzen duten hiru artikulu aurkitu dira ³⁴⁻³⁶. Cho ES et al. ³⁴ eta Parsa P et al. ³⁶ artikuluak bat datoz kanguru metodoa jaioberrien oxigeno saturazioa egonkor mantentzeko teknika erangikorra delako ideiarekin. Hala eta guztiz ere, aurreko ikerketen ildoan alde batera utzita, Bloch-Salisbury E et al.³⁵ ikerketak, kanguru metodoa burutu eta burutu ez dutenen artean oxigeno saturazioan desberdintasun esanguratsurik egon ez dela adierazten du ($p=0.261$).

Bukatzeko, gorputz tenperaturari dagokionez, kanguru metodoa burutzen ari diren momentuan jaioberrien gorputz tenperatura modu esanguratsu batean handitzen dela ikusi da ($p<0.01$) ³⁴⁻³⁶. Gauza bera gertatu da inkubagailutik atera eta kanguru metodoa jaso duten jaioberrien kasuan, tenperatura handituz edo egonkor mantenduz ³⁵. Honako hau gurasoek jaioberriei eskaintzen dieten azaleko berotasunagatik izan daitekeela ondorioztatu daiteke ³⁴⁻³⁶.

Laburbilduz, kanguru metodoa burutzen den bitartean, jaioberri hauen parametro fisiologikoak egonkortu egiten direla esan daiteke, hau da, bihotz eta arnas maiztasuna murriztuz eta pisua, taila eta tenperatura handituz. Oxigeno saturazioaren inguruan ordea ez da emaitza garbirik aurkitu. Hori dela eta, neonato jakin hauen osasun fisiologikoan teknikak eragin positiboak dituela ikusi da. Hala ere, epe luzera kanguru metodoak dituen eraginak eta oxigeno saturazioaren inguruko eraginak aztertzen jarraitzea gomendagarria litzateke.

GURASOENGAN DITUEN ERAGINAK

Ongizate psikologikoa eskuratzea

Gurasoen ongizate psikologiakoa eskuratu ahal izateko, artikuluek guraso hauen estresa eta antsietatea aztertzen dituzte, izan ere, hauek murriztea lortuz gero, ongizate psikologikoa eskuratuko litzateke ^{28,29,31,34,37,38}. Kanguru metodoa gurasoen ongizate psikologikoa lortzeko (estresa eta antsietatea murriztuz) gai den aztertzen duten sei artikulu aurkitu dira ^{28,29,31,34,37,38}.

Estresa kalkulatu ahal izateko, artikuluek tresna desberdinak erabiltzen dituzte. Horieta bat listuko kortisol maila da, izan ere, listuko kortisol maila altuak estresarekin erlazionatzen dira ^{31,37,38}. Bestalde, PSS eskala (Perceived Stress Scale) ere erabili dutela ikusi da. Eskala honen balio altuek estres maila altua adierazten dute eta alderantziz ²⁸.

Gurasoen estresari dagokionez, artikulua desberdinetan, kanguru metodoak estresa murriztean eragina duela ikusi da. Cho ES et al. ³⁴ artikulua adierazten duen bezala, kanguru metodoa burutu duten gurasoen kasuan, estres mailak modu esanguratsu batean jaitsi dira ($p < 0.001$).

Ildo beretik, Coşkun D et al. ²⁸ ikerketan ere, kanguru metodoa burutu duten gurasoen kasuan, estres mailak modu esanguratsu batean jaitsi direla ikusi da ($p < 0.02$). Hala nola, ikerketa honetan, aurrekoan ez bezala, PSS eskala (Perceived Stress Scale) erabili da ²⁸. Hori dela eta, kasu honetan, PSS eskalaren balioak modu esanguratsu batean jaitsi dira ($p < 0.02$), estres maila gutxituz ²⁸.

Vittner D et al. ³⁷ artikulua ere gurasoen estres mailari egiten dio erreferentzia. Hala ere, ikerketa honetan estres mailak ikertu ahal izateko listuko kortisol mailei erreparatu zaie ³⁷. Hori dela eta, artikulua honetan ere, aurreko bietan bezala, kanguru metodoa burutu duten gurasoen kasuan, listuko kortisol mailak modu esanguratsu batean murriztu dira ($p < 0.001$) ³⁷. Honetan ordea, beste ikerketetan ez bezala, kanguru metodoa praktikatzeari uztean listuko kortisol maila ohiko baloreetara bueltatzen dela ikusi da ³⁷.

Bestalde, epe luzerako eraginen inguruan aztertu ahal izateko Varela N et al. ³⁸ artikulua aurkitzen da. Ikerketa honetan, Vittner D et al. ³⁷ artikuluan bezala, gurasoen estres mailak ebaluatu ahal izateko listuko kortisol mailei erreparatu zaie ^{37,38}. Hori dela eta, kanguru metodoa burutzen duten gurasoen kasuan, listuko kortisol mailak epe luzera modu esanguratsu batean murrizten dira ($p < 0.001$) ³⁸. Hala nola, honako honek gurasoen estres mailak modu esanguratsu batean jaitsi direla adierazten du ³⁸.

Hala eta guztiz ere, Mörelius E et al. ³¹ artikulua ez dator bat Varela N et al. ³⁸ artikuluaekin. Izan ere, Mörelius E et al. ³¹ ikerketan, kanguru metodoa burutu duten gurasoen kasuan listuko kortisol maila ez da modu esanguratsu batean murriztu lau hilabetetara ($p = 0.58$). Hori dela eta, ikerketa honetan kanguru metodoa burutu duten gurasoen kasuan estres mailak modu esanguratsu batean jaitsi ez direla esan beharra dago ^{31,38}.

Bukatzeko eta gurasoen ongizate psikologikoa baloratzen jarraitu ahal izateko, antsietatea kontutan hartzea garrantzitsua da ³⁷. Hori dela eta, Vittner D et al. ³⁷ artikuluak gurasoen antsietateari erreparatzen dio. Beraz, artikuluan adierazten den bezala, gurasoek kanguru metodoa burutzen duten bitartean, hauen antsietatea modu esanguratsu batean jaitsi dela ikusi da ($p < 0.001$) ³⁷.

Laburbilduz, aztertutako parametroak erreparatuz eta Lau Y et al. ²⁹ artikuluan adierazten dena kontutan izanik, kanguru metodoak epe laburrean gurasoen ongizate psikologikoa eskaintzen duela esan daiteke, estres zein antsietate mailak murriztuz. Hala eta guztiz ere, baieztapen hau ezin dugu orokortu epe luzeari dagokionez.

Guraso eta jaioberrien arteko harremanak sendotzea

Jaio eta berehala guraso eta jaioberriak harremanetan jartzen dira, eta honako hau ondorengo guraso eta jaioberrien arteko harremanen oinarri izango da ^{34,37,39}. Kanguru metodoak jaioberri eta gurasoen arteko harremanetan eragin zuzena duela ikusi da ^{34,37,39}. Hori dela eta, hiru artikuluk kanguru metodoak guraso eta jaioberrien arteko harremanetan duen eragina aztertzen dute ^{34,37,39}.

Cho ES et al. ³⁴ ikerketa honetan, guraso eta jaioberrien arteko harremana baloratu ahal izateko, tresna gisa, galdetegi bat erabili dute. Galdetegi honetan 24 galdera planteatzen dira eta hauek erantzuteko 1etik (oso desados) 5era (guztiz ados) puntuatu beharra dago ³⁴. Hau kontutan izanik, galdetegi honetako puntuazio altuenek, guraso eta jaioberrien arteko harremanik indartsuena adierazten dute ³⁴. Beraz, honako hau kontutan izanik, ikerketa honetan kanguru metodoa burutu duten taldean, metodoa burutu ez dutenekin alderatuta, guraso eta jaioberrien arteko harremanak hobeak izan direla ikus daiteke, harremanen puntuazioa modu esanguratsu batean handitu baita ($p < 0.001$) ³⁴.

Vittner D et al. ³⁷ ikerketan, guraso eta jaioberrien arteko harremanak aztertu ahal izateko, listuko oxitozina maileri erreparatu zaie. Listuko oxitozina maila altuak erlazio zuzen eta estua dute atxikimendu, lotura edo harremanekin ³⁷. Hau kontutan izanik, ikerketa honetan, kanguru metodoa burutu duten bitartean, gurasoen listuko oxitozina mailak modu esanguratsu batean handitu direla ikus daiteke ($p < 0.001$) ³⁷. Honekin, guraso eta jaioberrien harremanean edo atxikimenduan emaitza positibo bat egon dela ondorioztatu daiteke ³⁷.

Honako hau dela eta, Vittner D et al.³⁷ ikerketan, jaioberriei ere gauza bera gertatzen zaiela ikusi da, hala nola, kanguru metodoa burutzen den bitartean, neonatoen listuko oxitozina mailak modu esanguratsu batean handitzen dira ($p < 0.002$). Hala eta guztiz ere, esan beharra dago, praktika uzteaz batera, bai guraso eta bai jaioberrien listuko oxitozina mailak jaitsi egiten direla, hala nola, hauen harreman edo atxikimenduan eragin negatibo bat sortuz³⁷.

Bestalde, Kurt FY et al.³⁹ ikerketan, aurreko ikerketetan ez bezala, guraso eta jaioberrien arteko harremanak MAS eskalaren (Escala de apego materno) bidez aztertu dira. Eskala honen puntuazio altuenak guraso eta jaioberrien arteko harreman edota lotura gorena adierazten du³⁹. Honako hau kontutan izanik, ikerketa honetan, kanguru metodoa burutu duten gurasoen kasuan MAS (Escala de apego materno) eskalaren baloreak estatistikoki modu esanguratsu batean handiagoak izan dira ($p < 0.001$)³⁹. Hori dela eta, kanguru metodoa burutu duten guraso eta jaioberrien artean harreman eta lotura handiagoa izan dela ondorioztatu daiteke³⁹.

Orain artekoa laburbilduz, azal azaleko teknikak guraso eta jaioberrien arteko harremanean eragin zuzen eta estu bat duela esan beharra dago. Gurasoen kasuan esaterako, kanguru metodoa burutzen duten bitartean listuko oxitozina maila altuak dituztela kontutan izanik, sinkronizitate eta beraien interakzioetarako ahalmen handiago bat izan dezaketela ikusi daiteke. Honako hau teknikak eskaintzen duen goxotasun eta denboragatik izan liteke^{34,37,39}.

ONDORIOAK

Emaitzen atala kontutan izanik eta helburuari erreparatuz, kanguru metodoak guraso zein jaioberriengan eragin positibo ugari dituela ikusi da.

Alde batetik, jaioberriei dagokionez, kanguru metodoa prozedura mingarrien momentuan, ziztadan esaterako, minaren balioak murrizteko metodo ez farmakologiko eraginkorra dela ikusi da. Bestalde, minak eragindako erantzun fisiologikoak (bihotz maiztasuna) egonkortzeko baliagarria izan daitekeela ere esan liteke. Hala ere, etorkizuneko mina murrizteko gai den jakiteko ziurtasun falta dagoela esan beharra dago. Edoskitze naturalari dagokionez, denboran zehar kanguru metodoa praktikatu duten jaioberrien kasuan edoskitze naturalean emaitza positiboak ikusi dira, honen luzapenean eta produkzioan esaterako. Jaioberriekin bukatzeko, epe laburrean kanguru metodoa burutu den kasuan, jaioberrien parametro fisiologikoen egonkortzea eskuratu da; bihotz maiztasuna eta arnas maiztasuna murriztu edo egonkortuz, temperatura igoz eta pisu eta taila handituz (epe luzera). Oxigeno saturazioaren inguruan ordea ez da emaitza garbirik aurkitu.

Beste alde batetik, gurasoen ongizate psikologikoari erreparatuz, kanguru metodoari esker, epe laburrera, gurasoen estres zein antsietate mailak murriztu egiten direla ikusi da, izan ere, listuko kortisol mailak eta PSS eskalaren balioak murriztu baitira. Horrez gain, guraso eta jaioberrien arteko harremanari dagokionez, azal azaleko teknikak hiru banako hauen arteko harremanean eragin zuzen eta estu bat duela esan beharra dago, hau da, metodoa praktikatzen den bitartean guraso eta jaioberrien arteko harremana momenturik indartsuenean aurkitzen da (harremanen galdetegian puntuazio altua eta listuko oxitozina maila altuak).

Honako hau ikusita, aipagarria da, eragin positibo hauek batez ere epe laburrean oinarritzen direla eta hori dela eta, epe luzera izan ditzakeen eraginak gutxi ikertuta daudela. Honako hau, ikerketak denbora tarte txikian gauzatu direlako izan daitekeela pentsa liteke. Ondorioz, epe luzerako eraginen inguruan gehiago ikertzen jarraitzea gomendagarria litzateke, ikerketak denbora tarte luzeagoan gauzatuz eta epe luzera izan ditzakeen eraginak aztertuz.

Bestalde, guraso eta jaioberri hauen zainketetaz arduratzen direnak, neonatologia unitateko erizainak dira. Beraz, kanguru metodoak guraso zein jaioberriengan onura ugari

dituela ikertu ondoren, erizainen partetik garrantzitsua izango litzateke praktika hau indartzea, erabilgarritasuna handitzea eta ikusgarri bihurtzea.

Honako hau posible izateko, garrantzitsua litzateke erizainek azal azaleko kontaktuaren inguruko ezagutza egokia izatea (zer nolako eraginak eskaintzen dituen, nola aplikatzen den, zein momentutan aplikatu behar den...). Horregatik, erizain hauei formakuntza egoki bat eskaintzea beharrezkoa litzateke.

Behin hau lortuta, erizainak gurasoei metodoaren inguruko ezagutza egoki bat eskaintzeko gai izango lirateke. Momenturik egokiena bilatzea garrantzitsua litzateke, hala nola, gurasoak zein jaioberriak prest daudenean eta beti ere hiru banako hauen intimitatea errespetatuz. Hau lortutakoan, erizainak praktikaren nondik norakoak azalduko ditu, gurasoek praktika burutzen duten bitartean, argibideak eta pauso bakoitzaren zergatia eta garrantzia azalduz.

Hori dela eta, erizainek eskainitako sostengua kontutan izanik, gurasoak jaioberrien zainketetan gehiago inplikatzeko lortuko litzateke, gurasoak lehen mailako zaintzaile bihurtuz eta hiru hauen ongizate biopsikosoziala lortuz.

MUGAK ETA ZAILTASUNAK:

Literaturaren berrikusketa kritiko hau egiterako orduan zenbait muga aurkitu dira.

Lehenengo aldia izan da literaturaren berrikusketa kritiko bat egiten dena eta hori dela eta hasiera batean zailtasunak sortu dira lanaren nondik norakoak behar bezala ulertzeko. Hala ere, apurka-apurka lana aurrera eramatea lortu da.

Honez gain, hasiera batean informazio ugari bilatu da eta hori dela eta, zaila izan da lana zentratu eta hau bideratzea. Hala ere, lanaren helburua ondo zehaztu ostean, erraza izan da baliagarriak izango diren artikulua aukeratu edota baztertzea.

Bestalde, esan beharra dago, izandako zailtasun handienetako bat hizkuntza izan dela, ingelesa hain zuzen ere. Bilatutako artikuluen ehuneko oso handi bat ingelesez idatzita aurkitu da eta hori dela eta, denbora asko pasa da artikulua behar bezala ulertu eta itzultzen.

Hitz gakoei dagokienez, *Guraso* deskriptorea erabili den ekuazio askotan, bilaketa kopurua murriztu egiten dela ikusi da eta hori dela eta, *Ama* hitz gakoa erabiltzea erabaki da. *Ama* hitz gakoa aukeratu da kanguru metodoa iturri askotan kanguru ama metodo gisa definitzen delako. Honako deskriptore honi esker, egindako bilaketak aberasgarriagoak izan dira.

Bukatzeko, datu baseei dagokienez, gaztelaniaz argitaratutako datu baseetan egindako bilaketak, hala nola, IME eta CUIDEN, ez dira arrakastatsuak izan, izan ere, argitaratutako artikulua eguneratu gabe egoteaz gain, eguneratu gabeko artikulua hauek behin eta berriz errepikatzen baitira datu base hauetan. Hori dela eta, Espainia mailan gai honen inguruan ikerteta eguneratuagoak egitea gomendagarria litzateke. Honako hau posible ez balitz, ideia ona litzateke beste hizkuntza batzuetan idatzita dauden eta gai honi buruz hitz egiten duten artikulua itzultzea. Modu honetan, metodoa gehiago ikustarazteko.

BIBLIOGRAFIA

1. OMS. Método madre canguro. Guía práctica. Departamento de Salud Reproductiva e Investigaciones Conexas Organización Mundial de la Salud Ginebra. *Dep Salud Reprod e Investig Conex*. 2004;3.
2. Conde-Agudelo A, Díaz-Rossello JL. Kangaroo mother care to reduce morbidity and mortality in low birthweight infants. The Cochrane Collaboration. 2017.
3. Paisán L, Sota I, Muga O, Imaz M. El recién nacido de bajo peso. AEP: Neonatología. Asoc Española Pediatría Protoc Diagnóstico *Ter la AEP Neonatol* [Internet]. 2015;78–84. Eskuragarri: https://www.aeped.es/sites/default/files/documentos/9_1.pdf
4. García Berman R, Gascón Garcia S, Jover Espinosa F. Método canguro. *Rev Enferm*. 2004;27(1):63–6.
5. March of Dimes, pmNch, Save the children, Who. Born Too Soon: The Global action report on preterm Birth. eds cp howson, mV Kinney, Je lawn. World health organization. Geneva, 2012
6. Angelhoff C, Blomqvist YT, Sahlén Helmer C, Olsson E, Shorey S, Frostell A, et al. Effect of skin-to-skin contact on parents' sleep quality, mood, parent-infant interaction and cortisol concentrations in neonatal care units: Study protocol of a randomised controlled trial. *BMJ Open*. 2018;8(7):1–8.
7. Vittner D, Butler S, Smith K et al. Parent Engagement Correlates with Parent and Preterm Infant Oxytocin Release during Skin-to-Skin Contact. *Advances in Neonatal Care*. 2019;19(1):73-79
8. Kristoffersen L, Støen R, Rygh H, Sognæs M, Follestad T, Mohn HS, et al. Early skin-to-skin contact or incubator for very preterm infants: Study protocol for a randomized controlled trial. *Trials* [Internet]. 2016;17(1):1–9. Eskuragarri: <http://dx.doi.org/10.1186/s13063-016-1730-5>
9. Al-Shehri H, Binmanee A. Kangaroo mother care practice, knowledge, and perception among NICU nurses in Riyadh, Saudi Arabia. *Int J Pediatr Adolesc Med* [Internet]. 2019. Eskuragarri: <https://doi.org/10.1016/j.ijpam.2019.11.003>
10. Lewis TP, Andrews KG, Shenberger E, Betancourt TS, Fink G, Pereira S, et al. Caregiving can be costly: A qualitative study of barriers and facilitators to conducting kangaroo mother care in a US tertiary hospital neonatal intensive care unit. *BMC Pregnancy Childbirth*. 2019;19(1):1–12.

11. Parsa P, Karimi S, Basiri B, Roshanaei G. The effect of kangaroo mother care on physiological parameters of premature infants in Hamadan city, Iran. *Pan Afr Med J*. 2018;30:1–8.
12. Neu M, Robinson J, Schmiede SJ. Influence of holding practice on preterm infant development. *MCN Am J Matern Nurs*. 2013;38(3):136–43.
13. Norén J, Nyqvist KH, Rubertsson C, Blomqvist YT. Becoming a mother – Mothers’ experience of Kangaroo Mother Care. *Sex Reprod Healthc*. 2018;16(September 2017):181–5.
14. Flacking R, Lehtonen L, Thomson G, Axelin A, Ahlqvist S, Moran VH, et al. Closeness and separation in neonatal intensive care. *Acta Paediatr Int J Paediatr*. 2012;101(10):1032–7.
15. Yue J, Liu J, Williams S, Zhang B, Zhao Y, Zhang Q, et al. Barriers and facilitators of kangaroo mother care adoption in five Chinese hospitals: A qualitative study. *BMC Public Health*. 2020;20(1):1–25.
16. Kurt FY, Kucukoglu S, Ozdemir AA, Ozcan Z. The effect of kangaroo care on maternal attachment in preterm infant. *Nigerian Journal of Clinical Practice*. 2020;23(1):26-32.
17. Samra HA, Dutcher J, McGrath JM, Foster M, Klein L, Djira G, et al. Effect of Skin-to-Skin Holding on Stress in Mothers of Late-Preterm Infants: A Randomized Controlled Trial. *Adv Neonatal Care*. 2015;15(5):354–64.
18. Flacking R, Thomson G, Ekenberg L, Löwegren L, Wallin L. Influence of NICU co-care facilities and skin-to-skin contact on maternal stress in mothers of preterm infants. *Sex Reprod Healthc* [Internet]. 2013;4(3):107–12. Eskuragarri: <http://dx.doi.org/10.1016/j.srhc.2013.06.002>
19. Cuantitativa I, Navedo ES, Fontecilla MD, Santamaría MD, Diagnóstico P De, Suárez AA, et al. VOLUMEN 2 NÚM. 13 Julio - Octubre 2014. *Nuberos Científica*. 2014;2 núm. 13(la importancia del apego en la etapa infantil).
20. Monasterolo RC. Kangaroo care in preterm newborn infants admitted to a Neonatal Intensive Care Unit. *An Esp Pediatr*. 1998;49(5):495–8.
21. Charpak N. Bebes canguros. El recién nacido y su contacto con la madre. 1º edición. Barcenola; Gedisa; 2006
22. Ministerio de Salud y Protección Social. GPC Canguro. 2013.

23. Parsa P, Karimi S, Basiri B, Roshanaei G. The effect of kangaroo mother care on physiological parameters of premature infants in Hamadan city, Iran. *Pan Afr Med J*. 2018;30:1–8.
24. Strand H, Blomqvist YT, Gradin M, Nyqvist KH. Kangaroo mother care in the neonatal intensive care unit: Staff attitudes and beliefs and opportunities for parents. *Acta Paediatr Int J Paediatr*. 2014;103(4):373–8.
25. Nimbalkar SM, Chaudhary NS, Gadhavi K V., Phatak A. Kangaroo mother care in reducing pain in preterm neonates on heel prick. *Indian J Pediatr*. 2013;80(1):6–10.
26. Choudhary M, Dogiyal H, Sharma D, Datt Gupta B, Madabhavi I, Choudhary JS, et al. To study the effect of Kangaroo Mother Care on pain response in preterm neonates and to determine the behavioral and physiological responses to painful stimuli in preterm neonates: A study from western Rajasthan. *J Matern Neonatal Med* [Internet]. 2016;29(5):826–31. Eskuragarri: <http://dx.doi.org/10.3109/14767058.2015.1020419>
